

## ONDO ETORRI LEMOAKO LUDOTEKARA!!

*Uda eta gero martxan jartzeko momentua heldu da. Ludotekaren parte zarien ume eta familientzat eskuorri informatiboa da hau, ludotekako ohiturenganako konpromezua eskatu nahi dizuegulako. Halere, ohitura hauek moldagarriak izango dira, horretarako zuon parte hartzea beharrezkoa izango delarik.*

1. Ludotekara lehenengo aldiz datozen familiak matrikulazio orri bat bete behar izango dute, eta hezitzaileen partetik informazio orri hau jaso. Arazorik balego ludotekako ohiturekin horrela adierazi, kontrakorik esan ezean ohitura hauek onartu eta errespetatuko direla ulertzen dugu.
2. Ludotekako ordutegia: 16:30-19:00. Egun berezietan goizeko ordutegia izango dugu: 11:00-13:30.
3. Ludoteka 25 haur eta gaztetxoentzat edukiera du. Lekurik egon ezean, haurrak ezingo dira ludotekan sartu. Egoera hau asko errepikatzen baldin bada, ludotekako hezitzaileok irtenbide bat topatuko dugu (txandak egitea ume guztiak ludotekaz gozatu ahal izateko, adibidez). Irtenbide hauen barri emango zaie familiei bide ezberdinetatik.
4. Ludoteka zerbitzua 4-12 urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzenduta dago. Haurrak 4 urte betetzen duten urte hasieratik etorri ahal izango dira ludotekara (hau da, aurten 2015ean jaiotako umeak 2019ko urtarriletik etorri ahal izango dira).
5. Barikuetan ludoteka 10-12 urte bitarteko gaztetxoek erabiliko dute soilik (4,5 eta 6.mailako ikasleak), KALEA HARTUZ ekintza dugunean ez ezik.
6. Kalea hartuz! Ekimena herriko parkeetako dinamizazioak egitean datza udazken eta udaberrian zehar. Hauetan haur zein gaztetxo guztiak ondo etorriak izango dira, ez dago izen ematerik, bertara etortzearekin nahikoa da, baina haurrak ezin dira gure ardurapean utzi: adinagaitik behar izatekotan familiarteko bat hurbil egon beharko da, ez dago gure gain zaintza zerbitzua.
7. Haur eta gaztetxoek familiak EZIN DIRA ludotekan geratu; ez baitago jada horretarako espaziorik. Urritik aurrera, EGUAZTENETAN, familian jolasteko dinamizazioak antolatuko ditugu, eta hauetan bai, familiak ludotekan sartu ahal izango dira programa berezi hauetan parte hartzeko. Halere, gai honen inguruan informazioa iraila amaieran luzatuko zaizue.

8. Ludotekan oinutsik ibiliko gara, nahi izatekotan galtzerdiak ekarri ditzazkeuzue eta beran utzi.
9. Denon artean osatzen dugu ludoteka, beraz familien iritziak jatzeko buzoia izango dugu (bertan zuen iritzia emateko), hezitzaileak zuen ekarpenak eta galderak entzuteko prest egongo gara beti eta denon interesak asetzeko bidea aurkitzen saiatuko gara, beti ere haurren ongizatea erdigunean jarriz. Honez gain ludotekako hezitzaileok urtean zehar jarraipen ebaluaketak egingo ditugu zuekin batera.
10. Ludotekan EUSKERAZ BIZI nahi dugu, gure inguruneagaz harremanetan eta hau errespetatuz, gure arteko harreman osasuntsuak sustatuz eta aniztasunean zoriotsu biziz (kultur aniztasunean, aniztasun funtzionalean, sexu aniztasunean,...). Eta, noski, parekidetasunean (eskubide bardintasuna). Balio hauetan alkarregaz lan egitera gonbidatu nahi zaituztegu.

*Honez gain, haurrekin landuko ditugun ohitura batzuk ere badaude, alkarregaz garrantzi ematea gustatuko litzaigukena:*

1. **Ludotekan ezin da minik emon, ezta minik hartu. GOZATZERA ETORRI GARA.**
2. **Ludotekako materiala ludotekarena da, zerbait erabili eta gero txukun itzultzeko konpromezua hartuko dugu.**
3. **Ludotekan danok gustora jolasteko, bestean jolasak errespetatuko ditugu (besteak egiten dabizena apurtu barik, jostailuak eskutik kendu barik, egiten dogun zarata kontrolatuz ez molestatzeko, ...).**
4. **Hezitzaileon laguntza behar izatekotan hurbildu eta horrela eskatu (zaratarik egin gabe). Beste zerbait egiten badaude itxaron apurtxo bat, eta kasu egin ahal izango dizuete.**
5. **Kalera irten ahal izango gara, baina irtetzeko hezitzaileei komentatu, eta beraiekin adostutako lekuetatik ibiliko gara.**
6. **Emozioen txokoa erabiliko dugu gure nahiak asetzeko laguntza behar dugunean.**

ESKERRIK ASKO DANOI, ETA ERDU GUGEZ BATERA JOLASTU ETA GOZATZERA.

## ONDO ETORRI LEMOAKO LUDOTEKARA!!

*Ya estamos de vuelta. Mediante esta hoja informativa para las familias que participáis en la ludoteca, os queremos pedir compromiso hacia las costumbres con las que queremos convivir en la misma. Por supuesto, estas costumbres son flexibles, y para ello vuestra participación es imprescindible.*

1. Todas las familias que acudan por primera vez a la ludoteca deberán rellenar una ficha de matriculación, y recibir esta hoja informativa de la mano de las educadoras. Comunicad si existe algún problema con las costumbres aquí propuestas, de lo contrario entenderemos que las aceptáis y las respetareis.
2. El horario de la ludoteca: 16:30-19:00. Los días especiales el horario será de mañana: 11:00-13:30.
3. La ludoteca tiene una capacidad para 25 niños y niñas. Si no hay sitio, deberán quedarse fuera. Si esta situación se repite en varias ocasiones, las educadoras tomaremos medidas para solucionar el problema (por ejemplo, hacer txandas para que todos podamos disfrutar de la ludoteca). En el caso de tomar alguna decisión de este tipo se informará a las familias de diversas maneras.
4. El servicio de ludoteca es para los y las niños/as de 4 a 12 años. Los y las niñas podrán acudir desde principios del año que cumplan 4 años (es decir, en enero de 2019 podrán acudir los y las niñas nacidas en 2015).
5. Los viernes la ludoteca será utilizada por los y las niños/as de 10-12 años (4., 5. Y 6. de primaria); menos los días en que tengamos la dinámica KALEA HARTUZ.
6. Kalea hartuz! Es una dinámica que llevamos a cabo en los parques del pueblo durante algunos viernes de primavera y otoño. Todos y todas las niñas serán bienvenidos, y no hay necesidad de apuntarse, siendo suficiente acudir allí. Aun así los y las niñas no estarán bajo nuestra responsabilidad: si es necesario por la edad algún familiar deberá estar cerca.
7. Las familias NO SE PODRÁN quedar en la ludoteca, ya que no existe espacio para ello. A partir de octubre, los miércoles, organizaremos dinimizaciones para participar en familia, en las que las familias podrán entrar para participar. Toda esta información se os facilitará a finales de septiembre.
8. En la ludoteca estaremos descalzos/as, si queréis podemos guardar unos calcetines para su uso.

9. Todos y todas somos parte de la ludoteca, por lo tanto tendremos un buzón para recibir vuestras ideas, opiniones,... . Las educadoras siempre estaremos dispuestas a recibir vuestras aportaciones o preguntas, e intentaremos encontrar la manera de satisfacer las necesidades de todos/as, siempre poniendo en el centro el bienestar de los y las niñas. Además durante el curso las educadoras haremos evaluaciones de seguimiento junto con vosotros/as.
10. En la ludoteca queremos vivir en EUSKERA, en contacto con nuestro ambiente y respetando el mismo, impulsando relaciones saludables entre nosotros/as y vivir felices en la diversidad (en la diversidad cultural, funcional, sexual,...). Y, por supuesto, queremos equidad (igualdad en derechos). Os invitamos a trabajar de manera conjunta en estos valores.

*Además, existen otras costumbres a llevar a cabo con los y las niñas, y os pedimos vuestra colaboración para recalcar la importancia de las mismas:*

1. **En la ludoteca no se puede hacer daño, ni recibirlo. Hemos venido a disfrutar.**
2. **El material que está en la ludoteca, es de la ludoteca. Tras utilizar algo, nos comprometemos a dejarlo curioso en su sitio.**
3. **Para que todas podamos jugar a gusto, respetaremos los juegos de los demás (sin romper lo que otros/as están haciendo, sin quitar los juguetes que otros/as están utilizando, controlando el ruido que producimos para no molestar,...).**
4. **Si necesitamos la ayuda de una de las educadoras, nos acercaremos y se la pediremos (sin gritar). Si están haciendo otra cosa y no nos pueden atender, esperaremos hasta que acaben, y os podrán atender.**
5. **Podremos salir a la calle, pero antes de hacerlo comentarlo con la educadora, y estaremos en los lugares que acordemos entre todos/as.**
6. **Utilizaremos el txoko de las emociones cuando necesitemos ayuda para gestionar/satisfacer nuestras necesidades.**

ESKERRIK ASKO, Y OS ESPERAMOS PARA DISFRUTAR JUNTOS.